

GIZENTASUNA,



EKONOMIA

ETA

DEPRESIOA



AURKIBIDEA:

Hipotesia eta helburua	3
Datuen azalpena, azterketa eta ondorioak	
1. Depresiodun pertsonak eta gizentasundun pertsonak herrialdeko	4
2. Depresioa eta gizentasun mailaren arteko erlazioa	6
3. PBI-aren eta gizentasuna duten pertsonen arteko erlazioa	8
Datu-bilketa	11
Ikerketa hobetzea	13

Hipotesia eta helburua

Aukeratutako hipotesia da ea egoera emozionalak eta ekonomikoak ba al daukan erlazorik gizentasunarekin. Ikerketa honekin jendeak gizentasuna edukitzeko arrazoiren bat dagoen jakin nahi dugu, eta hala bada, gaixotasun hau tratatzeko orduan, janariaz gain, beste faktore batzuk kontutan hartzeko moduko garrantzia duten erakutsi nahi izan dugu. Gaur egun, gero eta gizentasun gehiago eta arazo psikologiko gehiago ikusten dira eta hauen artean erlazorik dagoen aztertzea da gure helburua.

Datuen azalpena, azterketa eta ondorioak


Hiru ataletan banatuta daude:

- Depresiodun pertsonak eta pertsona gizenak herrialdeko

Taula honetarako herrialde ezberdin batzuk hartu ditugu kontutan, konkretuki hamabost herrialde. Datuak ehunekoetan aztertu ditugu eta horrela, herrialde bakoitzeko bi zifrak alderatzeko gai izan gara.


Herrialdeak	Depresiodun pertsonak (%)	Gizentasuna duten pertsonak (%)
Chile	6,2	74
Mexiko	8	73
Estatu Batuak	19,2	71
Finlandia	1,46	68
Portugal	5,8	68
Australia	36,7	65
Turkia	86,3	64
Ungaria	16,65	62
Espainia	10,6	54
Kanada	20	51
Belgika	14,1	51
Israel	19,4	51
Frantzia	21	49
Hego Korea	11	34
Japon	6,6	26

x (depresiodun pertsonak) eta y (pertsona gizenak)



X ardatzean gure herrialdeak ageri dira, eta Y ardatzean hauen populazioa (100eko laginarekin). Horiz depresiodun pertsonak daude eta urdinez pertsona gizenak. Bi aldagai hauen arteko korrelazioa 0,12koa da, honek erlazio askorik ez dagoela esaten digu.

Obesitatea eta depresiodun pertsonak



Egoera emozional txarra daukaten pertsona gehien Turkian daude; ehunetik 86k depresioa daukatelako, erdiak baino askoz gehiagok. Gainerako herrialdeetan ez dira 25etik igoten (Australia salbuzpen, ehuneko 36,7-rekin). Arazo emozionalak dituztenen batz bestekoa ehunetik 18,87koa da, eta datu hori oso altua ez den arren, kexkatzekoa da. Atal honen desbideratze tipikoa 20,58koa da, beraz, datuak zakabanatuta daude.

Pertsona gizen gehien dagoen herrialdea Chile da, baina Mexikorekin eta Estatu Batuekin oso parekatuta dago. Chilen ehun pertsonatik 74-k gizentasunaz sufritzen du. Gaixotasun honen datuak oso altuak dira ia herrialde guztietan. Asiako herrialdeetan zifra hauek bajatu egiten dira, beraien elikadura gahinontzekoena baino hobetagoa baita. Arazo hau daukatenen batz bestekoa 57,4koa da. Honekin

ikus dezakegu munduan depresioa baino obesiate gehiago dagoela. Atal honen desbideratzea 14,12koa da, eta horrek datuak batz bestekoaren ingurutik dabiltzala adierazten digu.


- Depresioaren eta gizentasun mailen arteko erlazioa.

Kasu honetan ez ditugu herri zehatzak kontutan hartu, baizik eta mundu guztian zehar dauden depresio eta gizentasun kasuak. Gizentasuna ez dugu kasuka aztertu, graduka baizik. Hiru gizentasun gradu daude eta hauek gure gorputz masa indizearen (GMI) arabera sailkatzen dira. Pertsona gizentzat jotzen da bere GMIa 30etik gorakoa bada.

Lehen gradua (arriku txikiduna) GMIa 30 eta 34,9 bitartekoa bada. Bigarrena (arriku moderataduna) GMIa 35tik 39,9ra bada. Hirugarrena (arriku handiduna) GMIa 40 edo handiagoa bada. Beraz aztertzen duguna da, ea depresioa hazten den gizentauna hazten doan heinean.

Gizentasun graduak	Depresiodun pertsonak (%)
1	5,3
2	6,3
3	25

Depresiodun pertsonak eta gizentasun graduak




Grafiko honek gizentasun graduak adierazten ditu X ardatzean, eta Y ardatzean, aldiz, depresiodun pertsonak. Gizentasuna eta egoera emozionalaren arteko korrelazioa adierazten du.

Ikus dezakegunez; zenbat eta gizentasun maila handiagoa izan, depresioak ere gora egiten du. Gaixotasun maila baxuagoarekin egoera emozionala hobetagoa dela dirudi.

Depresio pertsonadun batz bestekoa 12,20koa da eta desbideratzea 11,10koa, beraz datuak nahiko zakabanatuta daude. Batz bestekoa baxua izan arren, ehun pertsonatik hamabik depresioa izatean, eskala andituz gero, jende asko hartzen ditu kontutan.

Gure bi datuen arteko korrelazio-maila 0,88-koa da; honek beraien arteko erlazioa oso altua dela adierazten du.

depresiodun pertsonak (%) eta obesitate graduak



Uste dugu honekin zerikusia izan dezketela sozietateak duen gorputz perfektuaren irudiak, eta honek eragiten dituen estereotipoak eta presioak. Hau da, gorputz gizen bat sozietatean askotan txarto ikusita dago, eta gainpisua duten jende asko


sozietatearen arbuioaren beldur da. Beldur hori egunerokoa denean depresio bihurtu daiteke.

- BPG-aren (barne produktu gordina) eta gizentasuna duten pertsonen arteko erlazioa.

Azkenengo ikerketa honetan, ekonomiak gizentasunarekin zer ikusia duen jakin nahi izan dugu. Kasu honetan, lehenengo taulako hamabost herrialde berdinak hartu ditugu eta bertako PBI-a (barne produktu gordina) eta gehiegizko pisudun pertsonen kopuruak bildu ditugu (milioi bat pertsonako laginarekin). Azken honen datuak lehenengo taulatik hartu ditugu, baina lagina ehunekoa izan beharrean milioi batekoa jarri dugu.


Herrialdeak	BPG (M€)	Gizentasundun pertsonak (1.000.000 biztanletik)
Chile	252.125	740.000
Mejico	1.133.905	730.000
Estatu Batuak	19.145.333	710.000
Finlandia	240.561	680.000
Portugal	213.301	680.000
Australia	1.232.502	650.000
Turkia	679.510	640.000
Ungaria	146.062	620.000
Espainia	1.244.757	540.000
Kanada	1.555.511	510.000
Belgika	476.203	510.000
Israel	352.560	510.000
Frantzia	2.425.708	490.000
Hego Korea	1.470.168	340.000
Japon	4.540.922	260.000

BPG (M€) eta pertsona gizenak (1.000.000 biztanletik)



Grafiko honetan herrialde bateko ekonomia (bere BPG, barne produktu gordina) eta leku hartan dagoen pertsona gizen kopurua aztertzen da (milioi bat pertsonako). BPGaren batz bestekoa 2.340.609koa da, baina desbideratzea ere oso altua da, 4.786.942koa. Pertsona gisenen batzbestekoa milioi bat pertsonatik 574.000koa da, hau da, erdia baino gehiagokoa. Hala ere, desbideratzea 141.158koa, beraz, batzbestekotik datuak ez dira asko urruntzen.

obesitatedun pertsonak (1000000 biztanletik)



Korrelazioa 0,09-koa da, beraz oso txikia eta ez dago ia erlaziorik. Hau ikusita, gure ondorio nagusia hau da: herrialde bakoitzean modu batera jaten dela, baina ez duela ia zerikusirik ekonomiarekin. Leku bakoitzean kultura ezberdin bat dago eta ohitura ezberdin asko daude. Beraz, uste dugu, jateko ohitura ezberdinekin zerikusi handiagoa duela, ekonomiarekin baino.

Estatu Batuetan dago BPG handiena eta gizentasun gehien dagoen herrialdeetako bat da, baina, aldi berean, BPG altuena duen bigarren herrialdea Japon da; kasu honetan Japon pertsona gizen gutxien duen herrialdea ere da. Hala ere, Estatu Batuetako BPG-a askoz handiagoa da, eta pentsa dezakegu egoera ekonomiko horren arrazoia lan asko dagoela dela, hau da, jendeak egunean ordu asko egiten dituela lan. Honen ondorioz jende askok ez du denborarik beraien janaria prestatzeko edo ez dute janariaren kulturarik, beraz erositako jateko arina (McDonalds adibidez) eskuragarriago dutela uste dugu.

Halan da guzti, obesitate kasuak eta depresio kasuak arduratu egiten gaituzte. Zifra hauek handitzen doaz eta pandemia mundial honek ekarri duen alerta egoera eta konfinamenduak pertsona asko kaltetu ditu bai psikologikoki, bai fisikoki. Etxean bakarrarik egoteak eta kanpora irtetzeko aukera ez izateak, jendeak kirolik ez egitea eragin du, eta baita nahi duten orduan eta erara jatea.

Ikerketa hobetzea

Ikerketa hobetzeko egin dezakegun gauzetako bat datuak adin ezberdinetan banatzea da, hau da, jendea orokorrean hartu beharrean egoera emozionala eta gizentasun kasuak begiratzerako orduan, adin ezberdinetan banatu, adibidez 4 talde eginez: umeak, nerabeak, helduak eta zaharrak.

Honez gain, gizentasuna ekonomia arloarekin alderatzeko orduan beste azterketa batzuk egin ahal ditugu: herrialde bakoitzean jendeak egiten dituen lan orduen batz bestekoa gizentasun kasu kopuruarekin konparatu. Era berean, herrialde bakoitzeko janari laster denda kopuruak begiratu genitzake eta hauek zenbat inbertitzen duten iragarkietan pertsona gizen kopuruarekin parekatzeko.

Datu-bilketa

Datu gehienak interneten aurkitu ditugu, gure inkesta propioak egiteko jende gizen gutxiegi ezagutzen baitugu. Hauek dira guk begiratu ditugun iturri nagusiak:

- <https://www.mscbs.gob.es/campanas/campanas06/obesidadInfant3.htm>
- https://elpais.com/economia/2017/12/14/actualidad/1513247261_077931.html
- <https://elordenmundial.com/mapas/tasa-poblacion-sobrepeso/>
- <https://www.dw.com/es/alemania-con-problemas-de-peso/a-2360375> :
- https://www.google.com/search?client=firefox-b-d&ei=vCoZYIO8lrWk5NoP-6uF4Aw&q=porcentaje+de+depresion+en+finlandia&oq=porcentaje+de+depression+en+finlandia&gs_lcp=CgZwc3ktYWIQAzIFCAAQzQI6BQgAELAD0gkIAB CwAxAlEB46CAghEBYQHRAeOgUIIRCgAToHCCEQChCgAVCMxQJYkdYCYJ7bAmgBcAB4AIAB4gGIAaUNkgEFMC44LjGYAQCgAQGgAQdnd3Mtd2l6yAEEwAEB&sclient=psy-ab&ved=0ahUKEwiDiu-igMvuAhU1ElkFHftVAcwQ4dUDCAw&uact=5
- <https://www.elsevier.es/en-revista-atencion-familiar-223-articulo-obesidad-su-asociacion-con-factores-S1405887116300335>
- <https://www.redalyc.org/pdf/292/29210214.pdf>
- https://www.abc.es/familia/padres-hijos/abci-obesidad-y-problemas-emocional-es-desarrollan-juntos-partir-7-anos-201905130139_noticia.html
- https://www.eustat.eus/elementos/ele0016800/datosrelevantes_escav2018/inf0016842_c.pdf
- <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/obesity-and-overweight>
- https://www.eustat.eus/elementos/ele0016800/datosrelevantes_escav2018/inf0016842_c.pdf

- <https://www.altonivel.com.mx/empresas/negocios/11894-los-10-paises-con-mayor-depresion-en-el-mundo/>

Maitane, Laiene eta Arale.

